

{ koaderno } Erika LAGOMA

Neskamearena

Subrogatu: Norbait edo zerbait ordezkatzeari edo jartzea beste pertsona edo gauza baten ordezkari. **Ordezkatu:** Norbait edo zerbait beste norbaiten edo zerbaiten ordezkari jartzea. **Alokatu:** 1. Norbaiti zerbait ematea, bereziki hiri-lursail bat, animalia bat edo altzari bat, zehazten den denboran eta hitzartutako zenbatekoa ordainduta, erabil dezan. 2. Norbaitengandik zerbait hartzea, hitzartutako denboran eta prezioan erabiltzeko. 3. Pertsona bati buruz: Beste bat zerbitzatzen hastea, diru truk.

Haurdunaldi subrogatua, ordezkapen bidezko haurdunaldia, alokairu sabela.

Estatu espainiarreko legediak haurdunaldi subrogatuaren sustapen komertziala, publizitatea egitea, debekatzen du. Hala ere, akademiaren eta zientziaren atzerkipean antolatuta da Bilbon lehen aldiz “Emakumeak eta ordezkapen bidezko haurdunaldia” Nazioarteko Kongresua. Kontratupean haurdunaldi diren emakumeen bizipenak entzungo dira. Promoziorako bideoan lau ageri dira: bi arrazializatuak eta beste biak begi urdindun, ilehori, zuriak. Casting neurtua.

Legedi ezberdinen eta alegaltatearen barnean, kalkuluen arabera, 2027an, 33.900 milioi dolarreko negozioa izango da haurdunaldi subrogatuarena. Altruismoaren, askatasunaren eta merkantilizazioaren izenean etikaren mugak lausotzen dira. Altruismoa erditzen den emakumearena, ez prozesuan parte hartzen duten gainerako klinika, agentzia eta enparauena. Askatasuna erditzen den emakumearena, testuingururik ez balu bezala, sistemaren zapalkuntza orotatik salbuetsita balezko legez. Kontratu ezkutatuak, menderatzaileak, neurri gabekoak. Guraso izatea ez da eskubide bat.

Lursaila haurra da. Psikologo perinatalek argi diote umeak haurdunaldian, erditzean eta bizitzako lehen egunetan bizi duenak arrasto nabarmena uzten duela bere bizitza psikikoan, eta alderdi askotan bere garun-garapena baldintzatzen duela. Pisuzko arrazoi medi-

korik gabe, jaioberria amarengandik bereiztea indarkeria obstetrikotzat hartzen da. Haurdunaldi subrogatuak jaioberri bati zauri psikiko sakona eragitea dakar.

Ospitaletatik gorpil-aulkian eta haurra besoetan ateratzen diren erditu gabeko emakumeak, kamisoia jantzita, ohean jaioberriarekin, erditze ostearen simulazioan. Sofa batean burua ezin eutsita ageri diren niniak, argazkirako paratuak, atzean gizon irribarretsuak dituztela. Maitasun mugagabeko bat sareetan, aldizkarietan eta telebista programetan. Zer ederragoa familia baino. Eskuzabaltasunaren iruditeria, irudi desitxuratuak. Erditu direnak beltzean. Argazkilariak aukeratzen du enkoardatzea.

Emakume dirudunak, ohe handikietan, izterren artean dituzten neskameei eskumuturretatik heltzen, senar dituzten komandanteek bortxatzen dituzten bitartean. Zeremonia bat, jainkoaren izenean. Soineko gorri berdinduta, begirada apalez terroreak amorrua

Pisuzko arrazoi medikorik gabe, jaioberria amarengandik bereiztea indarkeria obstetrikotzat hartzen da. Haurdunaldi subrogatuak jaioberri bati zauri psikiko sakona eragitea dakar

janda. Neskamearen ipuina. Billeteak sakelari gizonak, utero desiraz, eskubide indibidualen izenean. Babesleku antiaereoetan emakume haurdunak. Leku ilun eta hotzak. Ura, elikagaiak eta botikak eskas. Sirena soinuak. Haurrak eraman zituzten agentziako langileak. Enpresaren eta gerraren izenean. Humanitatearen deshumanizazioa.

Hitzen eta irudien gerratea da hau. Objektiboekin eta filtroekin tranpa egin daiteke, hitzak edukiz hustu, eta opari paperaz bete. Ez da haurdunaldi subrogatua, ez ordezkapen bidezko haurdunaldia, ez alokairu sabela. Emakumeen esplotazio erreproduktiboa da, eta umeen salerosketa. •